



EUSKAL CURRICULUMA

AGERRALDIA AZAROAK 4, LARUNBATA, ANDOINGO MARTIN UGALDE KULTUR PARKEAN

Euskal Curriculumak dagoeneko bost urteko ibilbidea egina du. Euskal Herria osorako egitasmo honek ibilbide honetan hainbat urrats eman ditu eta egun ikastetxeetan aplikatu ahal izateko antolatu beharreko herri estrategia diseinatu eta zabaltzeko ahaleginetan ari da, beti ere behetik gorako norabidea aintzat hartuta, prozesu guztian zehar ahalbideratu duen herritarren inplikazio eta elkarlana bermatuz.

Alta, azken asteotan “Euskal Curriculuma” izenarekin beste proposamen bat zabaldu da EAEn. Honen harira zenbait ohartarazpen egin nahi ditugu:

- Egitasmo honek EAEn du abiapuntu eta helmuga. Ez da Euskal Herriko eta Euskal Herrirako Curriculumua.
- EAeko lehen eta bigarren hezkuntzako zuzendarien elkarteak gurasoen elkartearekin batera (SAREAN, BIE eta EHIGE, hurrenez hurren) sustaturiko curriculum honen kalitatea eta sortzeko prozesua oso dudakoa da.
- Azkenik, honek guztiak bazterrak nahasi eta zauri zaharrak ireki besterik ez du lortu. Beren egitasmoa “publika”ko Curriculum gisa aurkeztuz eta Udalbiltza, Ikastolen elkarteak eta Sortzen-Ikasbatuaz ena, aldiz, ekimen pribatu bezala.

Hau guztiagatik, **Euskal Curriculumaren aldeko apustua berresten dugu eta lurralde desberdinetako administraziopeko langile, guraso zein ikasleak dei egiten ditugu larunbata honetan goizeko hamabietan Andoingo Martin Ugalde kultur parkera hurbil daitezen.**

<http://www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/publika>